Tolosa San Blas eguna ospatu dute izen bereko auzoan 3

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza info

Ostirala, 2011ko otsailaren 4a. VIII. urtea. 2.169. zenbakia. **www.tolosaldea.hitza.info**

Aitor Lizartza alkatea, Sebas Gartziarena alkateordea eta Asier Goenaga tolosarra Kelle herriko haurrekin, dantzan. HITZA

Berastegi Senegalekin elkartuta

Kelle herriarekin senidetu ondoren, bi proiektu jarri dituzte martxan, bat garapen jasangarria bultzatzeko eta bestea kultur trukearen bitartez elkar ezagutzeko

Aitor Lizartza alkatea eta Sebas Gartziarena alkateordea herrialde afrikarrera joan dira bertatik bertara hango errealitatea ezagutzera 6-7

Zuhaitz zaharrak zaintzeko usadioa ikusi eta ikasteko elkartu dira Leitzan

Moarratze-teknikaren inguruan nazioarteko topaketa antolatu du Euskal Herriko Arbolazaintzaren Elkarteak 2

Ruben Saralegi leitzarra moarratze-teknika erakusten. A. IMAZ

Goiatz auzoko frontoiaren berrikuntza lanak inauguratuko dituzte bihar

Landagipuzkoa32 egitasmoaren laguntzarekin proiektuaren ia kostu guztia ordaindu da 3

Konfiantzan, Ikastola

Aurrematrikula
Epea
Urtarrilaren 31tik Otsailaren 11ra
Ordutegia
09:00-12:30 / 15:00-18:00

Anoetako Herri Ikastola
943 65 29 32
www.anoetakoherrikastola.net

Irurako Ikastola
943 69 43 74
www.irurakoikastola.net

Jesusen Bihotza Ikastola (Villabona/Zizurkil)
943 69 23 21
www.jesusenbihotzaikastola.com

Laskorain Ikastola (Tolosa)
943 69 71 22
www.laskorainikastola.net

Tolosako Inmakulada Ikastetxea
943 67 36 29
www.inmakuladatolosa.com

Uzturpe Ikastola (Ibarra)
943 67 12 99
www.uzturpe.net

TOLOSALDEAKO IKASTOLAK

Moarratze-teknika zer den ikasteko eta ikusteko aukera eduki dute Leitzan

Galtzear dagoen usadio honen inguruan Trepalari elkarteak jardunaldia antolatu du larunbatera bitarte

Asier Imaz Leitza

Zuhaitzen inguruan jardunaldi berezi eta interesgarria antolatu dute Leitzan. Nazioarteko izaera du gainera, eta ondorioz, parte hartzaileak Euskal Herritik nahiz kanpotik etorriak dira, besteak beste, Herrialde Katalanetatik, Italiatik edota Ingalaterratik.

50 lagun inguru elkartu ziren atzo Leitzako udaletxean, jardunaldiari hasiera eman zion ekitaldian. Larunbatera bitarte, herrian egingo dute bizia. Lehen egunean ikusitakoaren arabera, denek ezaugarri bat behintzat badute komunean: zuhaitzekiko interesa.

Passolaren eta Gabriel Saralegiren hitzaldiak. A. IMAZ

Moarratze-teknika

Euskal Herriko Arbolazaintzaren Elkarteak, Trepalarik, antolatu du jardunaldia, udalaren laguntzarekin. Ekimenaren izena berriz, ondorengoa da: Antzinako teknikak erabiltzen dituzten moarratzaileen nazioarteko topaketa.

Irekiera ekitaldian Gerard Passola biologoak hitz egin zuen. Honela laburbildu zuen jardunaldiaren izaera: «Orain galtzen ari den usadioaz kudeatzen ziren lehen zuhaitzak. Jardunaldiaren helburua hori izango litzateke, ikasgai hori berreskuratzea eta ikuspuntu zabalago bat ematea. Horretarako zuhaitzak nola funtzionatzen duten ikusi behar da». Usadio horri, moarratze-teknika deitzen zaio.

Passolaren hitzaldiaren ondoren, topaketako kideak Leitzalarreara joan ziren, aizkora bizi duten bi leitzarrekin. Gabriel Saralegik lehenik, aizkoren ezaugarriez hitz egin zien. Ondoren bere ilobak, Ruben Saralegi aizkolariak, erakustaldia eskaini zuen zuhaitzaren gainean. Moarratze-teknika gertutik ikusi ondoren, denek aizkoran ibiltzeko aukera izan zuten.

→ Laburrak

Musika eta antzerkiaz gozatzeko aukera

TOLOSA › Asteburu honetako kultur jardueraren baitan, musikaz nahiz antzerkiaz gozatzeko aukera izango da. Gaur iluntzean, Echale Guindas ikuskizuna izango da Leidor aretoan, 20:30ean. La Guinda flamenko taldea izango da oholtza gainean, flamenkoa eta poesia uztartuz. Bestalde, larunbatean Topic-en Robot Maitea antzezlan fantastikoa izango da gaztetxoenentzat, Marie De Jongh antzerki konpainiaren eskutik.

Emakumeen Nazioarteko Egunerako bilera

ANOETA › Datorren astelehenean, otsailak 7, Emakumeen Nazioarteko Eguna antolatzeko bilera izango da Anoetako udaletxean, 18:30ean. Antolatzaileek herritarrak animatu nahi dituzte bertaratu eta parte har dezaten eskatu dute.

Emaitza onak TAKek, bigarren jardunaldian

TOLOSA › Joan den igandean ospatu zen Gipuzkoako Arraun Ligakok bigarren jardunaldia Zumaian, eta Tolosako Arraun Klubak emaitza onak lortu zituen maila guztietan, estropadak aurreneko postuetan amaituz. Guztira hamar talderen ordezkaritza du TAKek liga honetan, eta hasieratik emaitza onak lortzeak «indarra» ematen die klubekoei. TAKeko arduradunek, bestalde, Ugaitz Mendizabal taldekide ohiaren lana azpimarratu nahi izan dute, Astillerorekin zortzikoan Espainiako Txapelketa irabazi baitu.

Danena Kirol Elkartearen debutarekin «oso gustura» arduradunak

Aiztondoko gazteei kirol aukera zabala eskaintzeko helburuarekin sortu da elkartea

Erredakzioa Villabona-Aiztondo

Gipuzkoako Federazioak antolaturiko txapelketan estreinekoz parte hartu zuen joan den asteburuan Danena futbol eskolak, Igartzan (Beasain), eta baita eskolarteko mailan Asteasun ere.

Pasa den udan hasi zen elkarte berri hau sortzeko prozesua, eta helburu nagusitzat finkatu zuten Aiztondo bailarako neska-mutilek Gipuzkoako gainerako herrietako gaztetxoen moduan, futbolean jokatzeko aukera izatea. Bestalde, Aduna, Asteasu, Zizurkil Goia, Alkiza eta Larraulgo haur eta gazteekin areto futboleko talde bat sortzea ere beharrezkoa iruditu zitzaien arduradunei.

Horrela beraz, haurrentzako talde berria sortu dute Anoetako Ikastolarekin elkarlanean.

Denboraldi honetako helburuak behin beteta, Danena Kirol Elkartea buru-belarri arituko da lanean kadete nahiz jubenil mailako talde bana osatze aldera.

Taldeak, ordea, badu jomuga sendoagorik ere, izan ere, belar artifizialezko futbol zelai bat eraikitzeko proiektua du esku artean. Zelaia Zizurkilen kokatu nahi dute, eta 2013rako amaituta egongo dela aurreikusten dute. Elkarteak udaletxe guztiei proposatuko die proiektua laster.

Hilberriak

KOLDO ALTUNA AZURMENDI

III. URTEURRENA

Txorien txorrotxioarekin
nahasten dira mendi zelaietan
aske dabiltzan abereen
zintzarri hotsak...
Lortuko dugu aita!
Gora Euskal Herria Askatuta!
Maite Zaitugu!

Iosune, Haimar, Olatz, Edurne, Ira, Ekiñe

ESKELAK

943-65 56 95
tolosaldean@hitza.info

HILETAREN BALIOA
Txina Inperiala
Funerania Vacongadan ere pentsatzen dugu pertsona bakoitzak bere neurriko hileta izan behar duela. Horregatik, alor horretan lider garenez, aukera ekonomiko guztietara egokitzen diren Hileta Zerbitzu Pack-ak eskaintzen ditugu gure kalitatearen bermearekin.
Berreskuraezina da galdu duzuna, baina laguntza eskainiko dizugu dena errazagoa izan dadin.
FUNERARIA VASCONGADA
EHORZKETAK
902 402 900
www.funerariavascongada.com

Irudia ▸ Tolosa

SAN BLAS OPILEN SALMENTAK EZ DU ETENIK

San Blas eguna ospatu zuten atzo eta, ohitura denez, jende ugari joan zen opilak erostera. «Jendea beti etortzen da, eguraldi ona ala txarra egin», zioen opil saltzaile batek. Opilak, noski, aurretik bedeinkatu zituen apaizak, baselizan meza ospatu eta gero. Egun honetan ere toka txapelketak bere lekua izaten du. Lehenengo hiruak Antonio Amondarain, Joxe Agirre eta Pello Jimenez izan ziren. Bihar eguerdian haur eta gaztetxoentzako jolasak izango dira. Arratsaldean toka txapelketa eta ondoren disko festa egingo dira. Etzi, goizetik hasi eta bazkal ordura arte, diana txarangarekin, meza, dantzariak, aizkolariak eta bertsolariak izango dira. Arratsaldean bertsolariek bigarren saio egingo dute eta festei amaiera emateko trikitilarien doinuak izango dira. Asteburuan ere opilak erosteko eta tabernan mokadutxoa hartzeko aukera izango da. I.G.

Goiatz auzoko frontoiaren berrikuntza bukatu dute

Landagipuzkoa32 egitasmoaren bitartez obraren ia kostu guztia diruz lagundu du Foru Aldundiak

Erredakzioa

Bidegoiango Goiatz auzoko frontoia asko erabiltzen da herri bizitza egiteko eta udalak berau berritzea bultzatu zuen Foru Aldundiaren Landagipuzkoa32 egitasmoaren bidez. Berritze lanak bukatu dira eta bihar egingo da inaugurazioa.

Horma, estalpea eta zorua egoera txarrean zeuden eta alor horietan egin dira lanak. Aurrekontua 352.000 eurokoa izan da. Udalak 2.000 euro jarri ditu eta Landagipuzkoa32 egitasmoaren bidez 350.000 euroko diru laguntza lortu da. Villabonako Bioetxe enpresak egin ditu lanak.

Fatxadan egin dira berrikuntza nagusiak. Euritik babesteko itxitura bertikala egin da polikarbonatozko xafla zeharrargitsuekin argia sartu dadin. Teilatu osoa berritu dute eta egurrezkoa egin dute dena.

Horrez gain, frontoiaren sarreran markesina bat eraiki dute eta bertan zegoen eserlekua kendu eta hiru txikiagoak jarri dituzte, irisgarritasuna hobetzeko. Lurzorua berritu dute eta frontoia margotu.

Goiatzko frontoia, berrikuntzak egin ondoren. I. GARCIA

Pilota partidak inaugurazioan

Frontoi berrituaren inaugurazioa bihar egingo dute, 11:00etan hasita. Pello Arzallus alkatea eta Rafael Uribarren Landa Ingurunearen Garapenerako diputatua izango dira zinta mozketa ekitaldian. Aurretik aurreskua dantzatuko da. Alkatearen eta diputatuaren hitzen ondoren, 11:25ak aldera, pilota partidak izango dira. Julen Otaegi-Egoitz Aburuza bikotea Josu Urdapilleta-Ander Urdanpilleta bikotearen aurka ariko dira. Ondoren, Andoni Egiguren eta Aritz Zelaiak elkarren aurka jokatuko dute. Norgehiagoken ondoren, mokadutxoa eskainiko dute bertaratzen diren guztientzat.

→ Laburrak

Ezker abertzalearen legalizazioa eskatuko dute

AMEZKETA › Ezker abertzalearen legalizazioaren inguruan deitu diren mobilizazioen baitan, Amezketan gaur elkarretaratzea egingo dute 19:30ean Abaltzisketako bidegurutzean. Gero, kartelak itsatsiko dituzte.

Ezker abertzalea gazteekin bilduko da bihar

ANOETA › Ezker abertzalea legealdi honetako balantzea egiten ari da hainbat gaien inguruan. Gazteria da horietako gai bat eta horretarako herriko gazteekin bilera egiteko asmoa azaldu dute, legealdiaren inguruan hauen iritzia jaso eta aurrera begira ikusten dituzten beharren inguruan hitz egiteko. Bilera bihar 11:00etan egingo dute Gaztetxean.

Artxipiaga plazako 105 garajeen zozketa egin dute

TOLOSA › Artxipiaga plazako 105 garajeren zozketa egin zuen Tolosako Udalak. 81 eskatzailek parte hartu zuten eta beraz, 24 plaza libre gelditu dira. Zozketan ere zehaztuta gelditu da aukeraketarako ordena. Aukeraketa hilaren 7an eta 8an egingo da. Libre gelditu diren plazetako bat eskuratu nahi duenak, udalaren webgunean edo udaletxean du informazioa.

sariduna
◦ Agustin Agote (Tolosa)
LAGUN ARO GBC
Caja Laboral Baskonia
saskibaloi partida
Urtarrilak 9 ◦ Igandea
12:30ean ◦ Donostiako Ilunben
Sarrerak eskuratzeko HITZAko bulegotik pasa
SAN SEBASTIAN GIPUZKOA BASKET S.A.D.
TXOKOA hitza

Irudia › Tolosa

‘TOLOSA BERDEZ’ -EN AURKEZPENA

Atzo arratsaldean aurkeztu zuten udal ordezkariek ‘Tolosa Berdez’ liburuxka berria. Argitalpenak Tolosako zatirik «ezezagunenetarikoa» eman nahi du ezagutzera, eta horretarako, hiriguneko lorategietatik hasi eta kanpoaldeko landa auzoetarainoko informazioa biltzen du. Euskarazko, gaztelerazko, ingelesezko eta frantsesezko testuz hornitu dute gida berria, eta informazioaz gain, hainbat txango ere proposatzen ditu, Tolosan naturaz ere goza daitekeela erakutsiz. ITZEA URKIZU

Irudia › Hernialde

AKTAK SINATU GABE

Abiadura Handiko Trenaren Tolosa-Hernialde zatiari dagokionean, zundaketa lanak egin ahal izateko desjabetze aktak sinatzen ari dira. Hernialden ordea, udal ordezkariak udaletxeko ateak itxi zituzten eta ezin izan zuten sinatzerik egin. Udaletxe barruan eta kanpoan izan ziren AHTaren aurkakoak protesta egiten. M. UGARTEMENDIA

Gutuna

Grebaren inguruko LABen balorazioa

Lehenik eta behin eskualdeko langileria eta Euskal Herrikoa oro har zoriondu nahi genuke greban emandako erantzunarengatik. Enpresa handietako langileek, txikietakoek, merkatariek, autonomoek, ikasleek, emakumeek, nekazariek etab. ek kalera ateratzeko hautua egin genuen langile guztiok kaltetze gaituen pentsio erreforma honen aurrean.

CCOOek eta UGTek ordea erreforma babestea erabaki dute. Dialogo sozialaren bidez gobernuaren hasierako asmoak baldintzatu dituztela eta erreformaren ondorio kaltegarriak txikitu dituztela da diskurtso ofiziala. Diskurtso hori egin ahal izateko elementuak jaso dituzte sinatu duten akordioan baina errealitatea bistakoa da: Pentsio eskubidea eskuratzeko baldintzak gogortu dira, prestazioak txikiagoak izango dira kalkulu epeak luzatu dituztelako eta ikusteke dago hartuko dituzten bestelako neurriekin kalteak norainokoak diren.

Neurri zehatzetatik haratago, akordioan jasotzen diren kontuak sistema publikoaren etorkizunari buruzko erabaki estrukturalak dira: sistema publikoa gaur dagoen bezala bideragarria ez dela onartzen dute, kotizazioen bidez eta horrela bakarrik finantzatu behar dela onartu dute eta pentsio sistema osagarriak sistema publikoaren baitan kokatuz hauek politika publikoen bidez bultzatu behar direla onartu dute, horrek ziurtatuko duelako sistema publikoaren unibertsaltasuna. Eman zaizkien kontra partida txikien truke, bi sindikatu hauek sistema finantzieroaren tesia bereganatu dute eta etorkizunean, sistema publikoaren bilakaeran tesi horrek finkatzen dituen ikuspegiari eta exiJentziei lotuak geratzen dira. Hor dago itunarekin langileei egin dieten iruzur nagusia gure ustez.

Langileok ondo ulertu dugu sindikatu hauek eta PSOE eta PNVren eskutik etorritako erasoa zer nolakoa izan den eta greba eguneko erantzuna ezin hobea izan zen. Goizean goizetik makina bat lagun bildu ginen pikete lanak burutzeko, gogotsu ekin genion industriagune desberdinetatik ibiltzeari eta baita herrietako merkataritza, banku etab.en ibilbidea burutzeari. Gure aldarrikapenak kalean egon ziren eta eskualdean izaniko erantzunak arrazoi gehiago ematen zigun kalean jarraitzeko. Egun horretako puntu beltza ordea Ertzaintzaren jarrera izan zen. Goizean goizetik piketeen aurkako jarrerarekin hurbildu zitzaizkigun, langileak identifikatzen, enpresetara sartzeko oztopoak jartzen, jipoitutako eta iraindutako langileak ere bat baino gehiago izan ziren.

Lakuaren greba desaktibatzeko bitartekoak gehiegizko zerbitzu minimoetatik haratago joan ziren egunean bertan ikusi ahal izan genuen moduan. Hala ere traba horiek gainditu eta garrantzitsuena kaleak aldarrikapenez bete zirela da, Donostian gehiengo sindikalak deituriko goizeko manifestazio jendetsuak edo Tolosako arratsaldeko manifestazioan 1200 lagunetik gora bildu izanak erakusten duen moduan.

Greba eguna pasa da eta Estatuan langileok oraindik eta gehiago kaltetzen gaituen akordioak sinatzen ari dira. Guk, hemen, Euskal Herriaren etorkizuna landu beharra daukagu, argi erakutsi dugu ez gaudela prest erreforma hau onartzeko, eta erakutsitako indar hau aurrerantzean gure aldarrikapenak lortzeko aktibo bilakatu behar dugu. Euskal Herriko langileriak geure eredu politiko eta sozioekonomikoa erabakitzeko gaitasuna izatea premiazkoa eta behar-beharrezkoa dugu, inork ez dezala gure ordez erabaki.

Eta hori lortzeko bidean euskal esparru sozioekonomikoa eta lan harremanetarako euskal esparruaren defentsan jarriko ditugu gure indar guztiak. Langile, ikasle, emakume, merkatari, autonomo, nekazari... Euskal Herria dugulako irabazteko.

■ **Tolosaldeko Lab.**





ZIZAREBELTZA12
EZIN DU BERE DIETA KONTROLATU,
BAINA ORDENAGAILUA
BERE NEURONEKIN KONTROLATZEN DU

50 M-KO ZUNTZA

INTERNETEN
BIZI DIRENEK EUSKALTEL
GOMENDATZEN DUTE

Batzuek izaki bitxitzat hartzen dituzten arren, etorkizuna eraikitzen ari dira. 50 mega aurrerago doaz. Orain, zuk ere gauza bera egin dezakezu.

euskaltel
zuretzat

Zuntzaren indarra

Deitu 1717ra - www.internetenbizidirenak.com

Sebas Gartziarena alkateordea eta Asier Goenaga tolosarra Berastegitik Kelle herrira egindako ezagutza bidaian, bertako haurrekin. HITZA

Berastegi Senegal iparraldeko Kelle herriarekin senidetu da

Elkartruke kulturala lortzeaz gain, garapen jasangarria bultzatuko duen proiektua eramango du aurrera Berastegiko Udalak

Maier Ugartemendia Berastegi

Berastegiko Udalak senidetze proiektu bat abian jarri du Senegaleko Kelle herriarekin. Helburua elkartruke kultural emankorra ezartzea eta garapen jasangarri bat martxan jartzea da.

2010eko azaroan abiatu ziren Senegalera, Aitor Lizartza Berastegiko alkatea, Sebas Gartziarena alkateordea eta Asier Goenaga tolosarra. Hegazkina azaroan hartu zuten arren, bidaia irailean hasi zen. Nene Dioph izeneko senegaldarrak, urtero bere herrira egiten duen bidaiara gonbidatu zituen hiru lagunak. Hasieran turismoa egiteko bidaia zena, Berastegi eta Kelle herrien arteko senidetze proiektua bilakatu da orain. Kelle Senegal iparraldean, Dakar hiriburutik 100 bat kilometrotara aurkitzen den herria da. 3.500 biztanle ditu. Senegal iparraldeko zonalde gehienetan bezala Islama da erlijio nagusia. Bidaia antolatzen hasitakoan, ahal zuten neurrian laguntzatxo bat eramatea pentsatu zuten. Horretarako Nene Diophen laguntzaz gain, Senegal hegoaldean amatasunaren inguruan lanean diharduten lagun batzuek ere lagundu zieten eraman behar zuten material ezberdina antolatzen.

Bidaiaren aurretik Nene Diophek Berastegiko Aste Kulturalaren barruan hitzaldi bat eskaini zuen. Bertan etorkin bezala bizitako bizipenak, eta hemengo kultura ezagutzen izan dituen esperientziak partekatu zituen bertan bildutako jendearekin. Gainera, Kelleko bizimodua, ohiturak, folklorea eta abarren inguruko saioa eskaini zuen. Senegalera iritsitakoan, hegazkinetik jaitsi orduko harrera bikaina jaso zuten berastegiarrek, eta beraiekiko jarrera hori 13 egunetan zehar mantendu zuten. Bidaian bizitako guztia ederra izan den arren, beraiek, hango umeen «alaitasunarekin eta indarrarekin» geratuko lirateke.

Esan bezala, bidaiara ez ziren helburu jakin batekin abiatu, baina, hara iritsitakoan zer behar zeuden ikusi zuten eta zer edo zer egin behar zela erabaki zuten. Izan ere, berastegiarrak Senegal iparraldeko egoera ezagutu zuten eta bertan zegoen antolakuntza «txarra» zela konturatu ziren. Hegoaldean animistak, musulmanak eta katolikoak daude. Bertan proiektu garrantzitsuak egiten ari dira. Iparraldean, kanpotarrekin «oso eskuzabalak» diren arren, antolakuntza falta dute. Horren adibide, Kelle eta inguruko herriek osatzen duten eskualdean dagoen anbulatorio bakarra. Eskualdeak 21.000 biztanle inguru ditu, eta bertako anbulatorio bakarrean dagoen langileen eskasia larria da. Gainera, langileak egon arren ez dute botikarik eta berastegiarrek emandako botika urrea balitza bezala jaso zuten.

Senidetze proiektua

Kelleko bidaiara Berastegiko Udaleko ordezkariak joan zirela probestuz, bertako landa ordezkariekin eta Hezkuntzako azpiordezkariarekin bilerak izan zituzten. Bilera hauetan proiektu posible bat elkarren artean gauzatzeko «lehen pausuak emateko borondatea agertu zuten» tokiko agintariek. Jarrera «positiboa» eta «lanerako gogo» honek Berastegiko Udala proiektu bat gauzatzea eta senidetze harreman bati hasiera ematea. Aipatu bezala, proiektuak bi helburu ditu. Bata Berastegi eta Kelleko biztanleen eta gizarteen arteko elkartruke kultural emankor bat ezartzea izango litzateke, «kultura kontzeptu zabal bat bezala harturik eta ez soilik folklore edo tradizioei erreferentzia eginez». Bestea garapen jasangarria izango duen proiektua sortzea litzateke. Horretarako, «ikuspuntu paternalista batetik aldenduta», asmoa ez da material pilaketa soil bat egitea eta hara bidaltzea. Sebas Gartziarenak dioen bezala, asmoa «han laguntzea da». Hau da, hona etorri eta «hemen ikasitakoa Senegalen aplikatzea».

Bertara joandako hiru lagunei harrigarriena egin zitzaien gauzetako bat, jendearen lasaitasuna da. Beraien helburua «familiako kide batek, familia guztia mantentzea da» eta «pentsaera horrekin ezin da herria aurrera atera». Dauzkaten errekurtso mugatuekin, beregainak izatea lortu behar dute.

Proiektu egokiena aukeratzeko ahaleginetan, udalak berastegiarren artean proiektu solidario baten lehiaketa egingo litzateke eta bertan ateratako proiektu hoberena eta egokiena Kellen aplikatzea izango litzateke ideia.

Proiektua gauzatzeko

Berastegiko Udala hil honetan bilduko da herriko elkarte guztiekin senidetza aurkeztu eta ideien lehiaketan partaidetza eskatzeko. Aukeraketa batzordea eratzeko eta proiektuen balorazioa egiteko Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntza edukitzea espero du Berastegiko Udalak. Beraien asmoa Nene Diophek urtero bere

IURREAMENDI EGOITZA
TOLOSA

IRAGARKIA

Tolosako Iurreamendi Egoitzak zaintzaile bat kontratatu nahi du aldi baterako errelebo kontratuaren bidez.

Deialdi honen oinarriak eta eskaera orri normalizatuak Iurreamendi Egoitzako bulegoetan
(Tolosako Iruña etorbideko 6an) daude interesatuen eskura.

Eskaerak aurkezteko epea 2011ko otsailaren 11an bukatuko da.

Tolosan, 2011ko otsailaren 4a
Zuzendaritza Batzordeko Lehendakaria: Jokin Bildarratz Sorron

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

herrira egiten duen bidaia aprobetxatuz, urtero materiala bidaltzea da.

2011ko azaroan, esate baterako, Berastegiko ordezkaritza batek Kellera bidaia ofiziala egiteko asmoa du. Alkatea eta gizarte saileko zinegotziaz gain, Berastegiko eta Euskal Herriko kulturaren lagin bat ordezkatuko lukeen pertsona talde batek bidaiatuko luke. Hauekin batera proiektu irabazlearen arduraduna eta proiektua gauzatzeko gutxieneko pertsona taldeak ere bidaiatuko luke. Bidaia honek hiru helburu izango lituzke: plano instituzionalean, 2010. urtean izandako harremanei gorputz ofizial bat ematea; proiektu solidarioa gauzatzea; eta Senegalen euskal kultura ezagutaraztea. 2011. urtetik aurrera elkartruke finko bat ezarriko litzateke urteroko ekintzekin.

Nene Diophen historia

Proiektu eta bidaia honen atzean, bada orain dela urte asko hasitako historia hunkigarri bat. Nene Diophek gora behera asko bizi behar izan ditu Aitor Lizartza, Sebas Gartziarena eta Asier Goenagarekin bidaia hau hasi aurretik.

Hala eta guztiz ere, bera «pozik» dago eta bidaian «asko disfrutatu zuen bere lagunekin». Diophek dio ez dela «erraza hango ohiturak hemen mantentzea, baina mantendu behar» direla. Berak esperantza askorekin hasi zuen bidaiari esker, Kelle herrian ere esperantza zabaltzea lortu du Nene Diophek.

Berastegiko eta Kelleko ordezkariak. HITZA

Gutunak

Denok gara kaltetu, baina nor da erantzulea?

Abiadura handiko trenaren harira ari naiz lagunok, aste honetan, Tolosa, Ibarra eta Hernialdeko lurjabe kaltetuok deituak izan gara gutun baten bidez udaletxera agertu eta bertan akten altxamendua aurrera eramateko sinatzera.

Hasiera batean gure eskubideak direla medio ez sinatzeko autua egin genuen kaltetu talde batek baina gaurkoan jakinarazi digutenaren arabera, gure sinadurak ez du inongo baliorik, hau da, akta altxamendua burutzen denean hiru multzo elkartzen dira, batetik gobernutik datozenak, bestetik lurjabea eta azkenik udaletxeko alkate edo berak asignatutako zinegotzi bat.

Gure lurren aurrean erabakia hartzeko garaian azken hitza udaletxeak dauka, hau da, Jokin Bildarratz alkateak. Guk eskubideak baditugu gure lurren aurrean, baina eskubide horiek bermatzen dituena udaletxeko alkatea da, ondorioz Jokin Bildarratz. Nahiz eta guk ez sinatu Jokin Bildarratzek sinatzen badu gure ukazioak ez du ezertarako balio, eta gure lurrak lapurtzeko bidea erabat zabalik geratzen zaie, alkateak gure eskubideak bermatzen ditu baina sinatzen duenarekin batera gure eskubideak ez dute ezertarako balio, hau da alkateak gure lurren eta baserrien aurrean guk legearen aurrean ditugun eskubideak ukatzen dizkigu. Horren aurrean Jokin Bildarratzi galdetu nahiko nioke: Nondik ateratzen duzu balore edo aurpegia alkate izanik zure herrikide multzo batek bere lur eta etxeak defenditzeko duten aukera zure sinadura batekin lapurtuaz?

■ **AHT Gelditu! Elkarlana.**

Bertan behera

Pasa den larunbatean eskaintzekoak ginen kontzertuaren gora beherak argitzeko, eskutitz hau idaztea pentsatu dugu Dolce Tangana talde tolosarreko kideok, geure izenean. Dakizuen bezala, Otsabin emanaldi bat geneukan antolatuta Atila y los Unos taldekoekin batera. Bi taldeak herrikoak izanik, eta bai guk eta baita Atila eta konpainiak eskaintzen dugun musika eta ikuskizun motagatik, sekulako giroa espero zen Otsabi inguruan, eta jende asko zegoen irrikatan kontzertu honetarako. Gugandik hasita.

Bilera bat egin genuen guztia ondo lotzeko, goizeko ordu batak arte baikeneukan baimenduta kontzertua, eta ordurako dena amaituta izateko moldatu ginen. Baina astean zehar, udalak gure kontzertua debekatu zuela jakin genuen. Aforo kontua omen. Otsabin lehendik ere makina bat kontzertu eginak dira, eta bizilagunen batzuk soinuagatik kexatu izan badira ere, guk goiz bukatuko genuela hitza emanda geneukan. Baina hala ere ezetz, lokalak ez duela jende askorik biltzeko lekurik eta ez genuela kontzerturik eskaini ahal izango. Halaxe zihoen udaletxeko goi karguetatik helarazi zitzaigun abisuak. Bertan behera geratu ginen.

Gertatutakoaren berri eman eta kontzertua behartuta suspenditu genuela jakinarazteaz gain, gure kexa adierazi nahi dugu udalaren debekuarekiko. Izan ere, euren erabakia herritar batzuei laguntze aldera hartu izan bada ere, beste asko eta askori oztopo besterik ez dio egiten, eta debekua soluzio bezala oso kamutsa iruditzen zaigu. Ez alternatibarik, ezta laguntzarik ere ez du eskaini udalak kontzertu hau aurrera atera zedin, horrela bai gu, bai beste taldea eta baita kontzertura etortzeko gogoz zeuden lagun guztiak sekulako tonto aurpegiarekin utziz. Errazenera jo izana eta utzikeria leporatzen diogu udalari, eta baita tolosarroi herrian bertan dibertitu eta gure ekitaldi kulturalak antolatu ahal izatea ukatzea ere. Azken batean, kontzertu bat eman eta ondo pasa, besterik ez genuen nahi, zer demontre!

Honenbestez, eta gutun hau aprobetxatuz, Tolosako alkate den Jokin Bildarratz tanganatik at utziz betatu egin nahi dugu Dolce Tangana taldeko kideok, eta gure edozein kontzertu edo emanaldira ez etortzea eskertuko genioke, ez baita atseginez hartua izango. Beraz, Jokin, bertan behera uzten zaitugu, gu pasa den larunbatean utzi gintuzuen bezalaxe.

■ **Dolce Tangana taldea.**

tolosaldekohitza.iragarkilaburrak.com

Higiezinak
OPORRETAKO ETXEBIZITZAK
SALDU
Tolosa. Jaka erdigunean, altzariz guztiz hornituriko apartamentua salgai. Garaje eta trasterarekin. Interesatuek, deitu 667-49 25 57 telefono zenbakira.

Lana/negozioak
LAN ESKARIAK
IRAKASKUNTZA
Villabona. Ingeleseko klaseak ematen dira Gipuzkoa mailan. Taldeka edo bakarka. Maila ezberdinak. Irakasle titulduna. Telefonoa 664-16 02 68 eta posta elektronikoa continental56@hotmail.com

ERRENTAN EMAN
Alegia. Alegian, ileapaindegi bat alokatzen da. Interesatuek deitu 665-70 82 08 telefono zenbakira.

Familia/etxea
ETXERAKO TRESNAK/ALTZARIAK
SALDU
Egongela osoa. Egongela osoa salgai. 2 sofa, altzaria, 3 mahai, 4 aulki, 3 lanpara eta alfonbra, dena berria bezala, sofak ezik. Prezioa 450 euro. Interesatuek, deitu 685-73 25 30 telefono zenbakira.

AUTOAK
SALDU
Opel zafira salgai. Airegirotua, 2.0 dti, 100 zaldi potentzia, 4 airbag, llantak, 4 kristal-jasogailu elektriko, itxiera baterazitua, lagundutako direkzioa, atzeko ispilu elektrikoak, irrati-cd-a, barruko ordenagailua, abs, tcs, lainoaren aurkako argiak, kristal tindatuak, 7 toki, matrikulatuta: 2005/5/02. 100.000km. Prezioa 6500 euro. Tel.: 663-93 60 26. Helbide elektronikoa: alanda@mondragon.edu

saltzeko, erosteko, alokatzeko, bilatzeko, oparitzeko...
tolosaldekohitza.iragarkilaburrak.com
Interneten
Paperean

ARAMBURU
943-65 17 13 / 664-37 25 60
www.aramburunet.net
SALGAI
• **Etxebizitza.** Amazabal kalean, igogailuarekin, Leitzan, Nafarroa.
• **Lokala.** Foruen kalean, Tolosan.
• **Garaje itxiak eta irekiak.** Tolosa, Ibarra eta Iruran.
ALOKATZEKO
• **Etxeak.** San Frantzisko kalean, Paper kalean, Herreros kalean eta Agintari kalean, Tolosan.
• **Garajeak.** Larramendin, Tolosan.
• **Txokoa.** Tximinia, komuna, ohe bikoitza, ordezko ohea eta terraza, Baraibarren.
• **Lokala** lurre auzoan, Tolosan.

www.inmosalbide.com
Salbide
SALBIDE
Higiezinen zerbitzuak
Aia. Eraikuntza berria. 3 logela, 2 bainugela eta 127 m2ko terraza. 46.588.000 pezeta.
Aizarnazabal. 3 logelako etxebizitza. Oso prezio onean. 28.500.000 pezeta.
Getaria. Herrerieta kalean. 3 logela eta 2 bainugelako etxebizitza. Trastelekuarekin. Egoera onean. 41.000.000 pezeta.
Zarautz. Langako plaza. 2 logela eta bainugela bat. Guztiz berritua. 45.000.000 pezeta.
Zarautz. Vista Alegren. 3 logela, bainugela eta aseoa. Terraza handia hegoaldera. Bista ederrak. 50.000.000 pezeta.
Zestoa. Erdialdean. Etxe bifamiliar batean, 3 logelako etxebizitza. 31.000.000 pezeta.

Etxebila higiezinak
943-44 61 66
ALOKAIRUAN
SALMENTAN
www.etxebila.net

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza info

2011-02-04 Eguraldia

Goiza | Arratsaldea | Tenperatura: 12º / 7º

Bihar

GOIZA	OSKARBI
ARRATSALDEA	OSKARBI
BEROENA	14º
HOTZENA	8º

Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza. Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldea.hitza.info

Zuzendariordea: Asier Imaz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosa@iragarri.net.
Tolosa: 687 410 082-687 410 032. tolosa@hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo @hitza.info.
Anoetaldea: 687 410 022. anoetaldea @hitza.info.
Ibarraldea: 687 410 118. ibarraldea @hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea @hitza.info.
Leitzaldea: 687 410 118. leitzaldea @hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak: BERTAKO HEDABIDEAK eta Tolosaldeko eta Leitzaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari

'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketa, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Orexa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

Farmaziak

GAUR

■ **Tolosa.** Tolosa, M. I. Kale Nagusia, 7.
Telefonoa: 943 67 06 48.
■ **Leitza.** Erbiti, O. Lizarraga, 7.
Telefonoa: 112.

BIHAR

■ **Tolosa.** Morant, R. Zabalarreta, 1.
Telefonoa: 943 67 36 49.
■ **Leitza.** Erbiti, O. Lizarraga kalea, 7. Telefonoa: 112.

ETZI

■ **Ibarra.** Iturrioz, I. Euskal Herria kalea, 3.
Telefonoa: 943 67 09 15.
■ **Leitza.** Erbiti, O. Lizarraga kalea, 7. Telefonoa: 112.

ASTELEHENA

■ **Tolosa.** Azpiroz, L. Amarotz auzoa, 9.
Telefonoa: 943 67 51 18.
■ **Lekunberri.** Mendia, M. I. Aralar kalea, 25.
Telefonoa: 112.

HITZAk ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Agurrak

Urte askoan!
Pello Zelarain (Villabonako euskal preso politikoa). Zorionak igandeko partez! Eutsi gogor! Maite zaituztegu!

Urte askoan!
Uxue Munduate Zabala (Anoeta). Gaur lau urte. Zorionak eta muxu handi bat aiton-amona eta bereziki, anaia bihurri Aitorren partetik.

Zorionak!
Eunate Gastesi Aierza. Urtetxo bat dagoeneko! Zorionak eta muxuak lehengusu Oier, Eneritz eta Uxueren partetik.

June Aja Zubeldia (Alegia). Bihar hilabete jaio zinela. Familia guztiaren partetik zorionak!

urtebetetzeak - urrezko ezteiak
ezkontzak - jaioberriak
jaunartzeak...

agurrak

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- HITZAren egoitza Tolosan: Araba etorbidea, 5 behea
- HITZAren egoitza Leitzan: Udaletxeko bulegoa

agurrak

PILAR GOYA
ESTETIKA ZENTROA

Errota 2, behea • Villabona
Tel.: 943 69 13 66

- Diodo laserra (gizonezkoentzat eta emakumezkoentzat)
- Aurpegi-tratamenduak
- Zimurren betegarri-tratamendua ama zelulekin:
- Urrezko xaflak
- Azalaren aholkularitza doan
- Oinen eta eskuen tratamendu eta edertasuna (iraupen luzeko esmalteak)
- Solarium bertikala, 10 minutu
- Solarium horizontala, 20 minutu
- Bainuen aurrekontua eskatu
- Depilazioa erabilera bakarreko argizariarekin

Laser promozioak

SHUYANA
EDERGINTZA

Hanka erdiaren depilazioa
5 saioetarako bonua **550 euro**

TRA. AKNE laserra + oxigenoterapia
3 saioetako bonua **270 euro**

Promozio hau otsailaren 7tik 21ra artekoa da

Eskolapioetako Lorategiak, 3 • 1A, TOLOSA • Tel.: 943 67 54 89
Shuyana kosmetiko denda, TOLOSA • Korreo kalea 1 • Tel.: 943 67 14 68